



## ESKAERA HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE:

**Legazpiko Udala**  
**Euskal Herria plaza, 1**  
**20230 – Legazpi (Gipuzkoa)**  
[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)

**Aurrez aurre:** Udaletxean (Euskal Herria plaza, 1. 20230 – Legazpi).

**Ordutegia:**

Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

**Posta arrunta bidez:** Posta bulegoetan, posta ziurtatu irekiaren bidez.

**Telematikoki:** [www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)

**e-posta:** [legazpi@legazpi.eus](mailto:legazpi@legazpi.eus)

### DATUEN BABESA

Ohar honen bidez jakinarazten dizugu zerorrek eman dituzun datuak LEGAZPIKO UDALAREN titularitate eta erantzukizuneko fitxategi batean sartu direla, Datu pertsonalak babestearen gaineko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko Legea betetze aldera.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiliko direnaren kalterik gabe; beti ere, ezartzekoa den legegintza betez.

Edozelan ere, eskaria izenpetzean eskatzailea informatuta dagoela ulertuko da. Modu berean, esandako xedeetarako eta Legean jasotako helburuetarako bere datuak erabiltzeko oniritzia ematen duela ulertuko da.

Gogoan izan eskainitako datuetara sarbidea duzula eta datuak zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea duzula, Legean ezarritakoaren arabera betiere. Horretarako, eskaera aurkez dezakezu udaletxean honako datuak adieraziz: izen-deiturak, jakinarazpenetarako helbidea, eskaera zehatza, eguna, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena. Eskaera hori honako helbidera bidaliko da: Euskal Herria plaza 1. 20230 Legazpi.

Erosoagoa egiten bazaizu, eskubide horiek Udalaren web orriaren bidez erabil ditzakezu helbide honetan: [www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus).

Halaber, “Datu Pertsonalen Babesaren arloko jardunbide Egokien Eskuliburua EAEko toki erakundeetarako” izeneko gidaliburua kontsulta dezakezu interneteko helbide hauetan: [www.eudel.net/eu](http://www.eudel.net/eu) eta [www.avpd.es](http://www.avpd.es).